



ABENDUAK 5 – BOLUNTARIOTZAREN NAZIOARTEKO EGUNA

PRENTSA OHARRA

Portugaleteko Udalak Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna dela eta, antolatzen diren ekitaldiekin bat egin nahi du sentsibilizazio-kanpaina berri bat aurkeztuta.

Horretaz gain, Boluntariotza Sustatzeko “Portugalete Uri Urena” XI. Sariaren epaiaren berri eman nahi du. Izan ere, saridunak hauexek izan dira: Oribeltza Saskibaloia Kluba entitatearen kategorian eta Gemma Escapa García andrea, herritarraren kategorian.

Kanpaina

Boluntariotza, elkartasuna eta horrek guztiak dakarrena gero eta nabarmengarriagoa da portugaletearren. Alta, gure udalerriko gizartea bilbatzen duen pertsona askoren eskuzabaltasunari esker lortzen dela esan gabe doa.

Arlo askotan behar dugu laguntza eta horrek gogoeta egiteko parada ematen digu. Halaber, bultzada ematen digu gure denbora librean gizarte berdinzaleago bat ere eraiki ahal izateko.

Beraz, abiapuntua hori izanik eta Boluntariotzaren Nazioarteko Egunarekin bat eginda gure kanpainaren ikurritza hauxe da: “TIEMPO PARA LA SOLIDARIDAD – ELKARTASUNAREN DENBORA”.

Ikurritzarekin batera, mezu zehatz eta zuzenak izan ezik erloju itxurako irudi batzuetan sartuta dauden gogoeta batzuk helarazi nahi dizkiegu herritarrei. Gogoeta horiek gai hauexei buruzkoak dira: dibertsitate funtzionala, migrazioa, haurrak, nagusiak, gaixotasuna, gizartearen berdintasun-eza edo ingurumena.

Kanpaina honek aurrera egiteko beharra dagoela azpimarratu nahi du, hau da, urratsa emateko egokiera iritsi dela eta gure denbora librean boluntariotza-zereginetan eman behar dugula. Hartara, Portugaleten boluntariotza sustatzen duten pertsona eta entitateen lanari aintzatespena egin nahi zaie.

Boluntariotza Sustatzeko “Portugalete Uri Urena” XI. Saria

Boluntariotzari buruzko Euskal Legeak Euskal Administrazio Publikoei eskumen osoa ematen die aintzatespena emateko neurriak ezar ditzaten boluntarioen lana jendaurrean aitortze aldera.

Horren harira, Portugaleteko Udalak 2008. urtean Boluntariotzaren Aholku Batzorde bat eratu zuen. Batzordean herriko elkarte eta eragile sozial batzuek parte hartzen dute eta boluntariotza sustatu eta sostengatzeaz gain, saria ezartzearen aldeko lana ere egiten dute.

“Portugalete Uri Urena” sariak, hitz gutxitan esanda, helburu du urtero Portugaleteko boluntarioen lan isil hori aintzatestea, haiei esker pertsona batzuen bizitza errazagoa baita, betiere, lan hori musutruk egiten dutelarik.

Sariak bi kategorian ditu: bata, entitatearena, eta bestea, herritarrarena.



Gure hamargarren edizio honetan hautagaitzak aurkezteko epea azaroaren 7an amaitu zen. Entitatearen kategorian zortzi proposamen jaso genituen; herritarraren kategorian, aldiz, hamar.

Boluntariotzaren Aholku Batzordeak, azaroaren 27an eginiko bilkuran, hautagaitzak aztertuta, boluntariotzaren gidalerroak (elkartasuna, berdintasuna, giza-eskubideen errespetua, enpatia eta abar) eta bai entitateak bai herritarrak garatutako lana kontuan hartuta boluntariotza eta haren balioak zabaltzeari begira eta herrian egindako lanaren garrantzi sozialaz jabetuta, Portugalete Uri Urena XI. Saria hauexei ematea erabaki zuen: entitatearen kategorian **Oribeltza Saskibaloï Klubari** eta, herritarraren kategorian **Gemma Escapa García andreari**.

Sariak emateko ekitaldia urtarrilaren 16an 19:00etan izango da Santa Klara kulturtegian.